

**Gai ordena:**

- 1- Ur depositoko tuberia**
- 2- Bizikleta gordailua**
- 3- Agenda 21 errepassoa**
- 4- 2017 aurrekontuetarako proposamenak**

**1- Ur depositoko tuberia**

O.A. eta A.G. proiektuaren egoera azaldu dute. Aurten 1. eta 2. faseak burutuko dira. 1. fasea azaroaren erdialdean bukatuta egotea espero da. 2. fasea abendurako.

**2- Bizikleta gordailua**

A.R. eta X.I. ekimenaren gorabeherak kontatu dituzte: Udal langileak Ainarak arautegi proposamen bat prestatu du. Erabaki da bizikleta kopuru maximo bat egongo dela eta kuota txiki bat ordaindu beharko dela urtero. Trasteak gorde ahal izateko beste arautegi bat egingo da (bizikletekin hasiko gara).

**3- Agenda 21 errepassoa**

I.A.k Agenda 21-eko ekintzen errepassoa dinamizatu du. Ekintza batzuk bertan behera uztea erabaki da eta gainontzekoen egoera errepassatu/eguneratu da. Informazioa Agenda 21-en tresna informatikoan sartuko da.

**4- 2017 aurrekontuetarako inbertsio proposamenak**

Datorren urterako inbertsio proposamen hauek atera dira:

- Ur horniduraren 3. fasea egin beharko litzateke (baina proiektua ez dago bukatua eta aurrekontua zenbatekoa izango den ez dakigu. Zenbaki bat jarri behar badezu, ggb 50.000€)
- Ur kontadore sektorial batzuk aldatu beharko dira, bat aldatu eta berri bat jarri. ggb 3.000€.
- Aurreko urteetako aurrekontuak begiratzen aritu ginen eta landa eremuko bideetarako 5.000 euro bideratzen zen. Baina gure iritziz, gutxiegi da. 10.000-15.000€ jartzea hobe.
- Aspalditik arrastaka daramagu baserri bideetan biondak jartzea. Dirulaguntzarik ez dute honetarako ematen eta 12.000 euro bideratzea ondo legoke.
- A.R.k aipatu zuen, Kale Nagusia eta Beiti kalea batzen dituen eskaileratako jardinak itxusi eta utziak daudela eta txukundu eta hobetu beharra dagoela.